



TXOSTEN METEOROLOGIKOA – UDA

Uda beroa izan zen, 0.5 °C-ko anomalia positiboarekin 1991-2020 denboraldi normalaren batezbestekoarekin alderatuz. Pilatutako prezipitazioa ohikoa izan zen, Kantauri isurialdeko zenbait lekutan hezea.

Udan 34 abisu hori igorri ziren, hiru hilabeteetan sakabanatuta. Ohikoa denez, gehienak beroagatik eta prezipitazio handiagatik igorri ziren. Gainera, 4 alerta laranja igorri ziren: lehenengo biak uztailean, muturreko tenperatura altuengatik eta tenperatura altu iraunkorragatik, hilaren 29an eta 30ean. Beste biak abuztuan igorri ziren, hilaren 11an muturreko tenperatura altuengatik eta 31n prezipitazio handiagatik. Azken gertaera honek eragin zituen kalte handienak, zaparradek, haize-boladek eta tximistek eragindakoak.

Zenbait estaziotan serieetako errekorrak gainditu zen. Horien artean aipagarrienak, uztailaren 29an eta 30ean neurtutako tenperatura minimo oso altuak eta abuztuaren 29tik 31ra ordubetea eta hamar minutuan pilatutako prezipitaziorik handiena.

Prezipitazioa

Pilatutako euriari dagokionez, uda ohikoa izan zen, Kantauri isurialdeko zenbait lekutan hezea. Gipuzkoako ipar-ekialdean egin zuen euri gehien, kostaldeko estazioak barne (Eskas 524.2 mm, Añarbe 406.7 mm, Andoain 348.3 mm, Oiartzun 336.4 mm, Ereñozu 335.7 mm). Zenbat eta mendebalderago, eta orduan eta euri gutxiago egin zuen, mendi inguruetan eta Bizkaiko kostaldeko zenbait lekutan bigarren mailako maximo batzuekin (Oiz 293.3 mm, Bermeo 260.9 mm, Arboleda 259.6 mm Oleta 252.1 mm). Añanan eta Arabako Errioxan egin zuen euri gutxien (Espejo 60.4 mm, Párganos 89.6 mm, Tobillas 90.3 mm, Subijana 92 mm). Arabako Kantauri isurialdean eta Enkarterrin ere pilatutako euria ohikoa dena baino urriagoa izan zen (Balmaseda 97.4 mm, Ordunte 102.4 mm, Saratxo 115.6 mm). Mende honetako beste udekin alderatuz, 2024ko uda erdialdetik gora kokatu zen, baina serie horretako hezearengandik oso urrun (2002koa).

Hiru hilabeteen bilakaera oso gorabeheratsua izan zen. Ekaina hezea izan zen, batez ere kostaldean. Uztaila, berriz, oso lehorra izan zen, barnealdean batez besteko klimatologikoaren erdia baino gutxiago pilatu zen. Abuztua ohikoa edo hezea zen, baina alde handiarekin leku batzuetatik besteetara zaparrada trumoiatsuak bota zituelako.

Euri-egunen kopurua batez besteko klimatologikoa baino handiagoa izan zen; Donostian 33 euri-egun izan ziren, Gasteizen 16 eta Bilbon 27. Zazpi egunetan izan zen euria oso ugaria (> 30 mm), horietatik hiru ekainean (20, 23 y 29) eta lau abuztuan (13, 28, 29 y 31). Urteko garai honetan ohikoa denez, prezipitazioaren ezaugarriak aipagarriena intentsitatea izan zen eta zaparrada



handiak hainbat aldiz bota zituen, zenbait egunetan oso handiak. Udan prezipitazio handiagatik 12 abisu hori igorri ziren; horrez gain, abuztuaren 31an alerta laranja igorri zen.

Ekainaren 29a udako egunik euritsuena izan zen, EAE osoan batez besteko prezipitazioa 20.5 mm-koa izan zen (Zizurkil 53 mm, Lasarte 51.3 mm, Andoain 50.7 mm, Miramon 49.9 mm, Altzola 49.2 mm, Ereñozu 46.1 mm, Ameraun 40.2 mm). Egun horretan, goizaldean depresio askatu batek zaparrada trumoitso handiak eragin zituen Gipuzkoa ipar-ekialdean (Lasarte 26.5 mm/h, Andoain 26.3 mm/h, Altzola 25.9 mm/h, Miramon 21.8 mm/h, Ereñozu 18 mm/h, Ameraun 16.2 mm/h, Oiartzun 15.6 mm/h) eta leku batzuetan oso handiak (Zizurkil 30.3 mm/h).

Hilaren 13an, arratsalde amaieran zaparrada handiak eta oso handiak bota zituen Bilbo Handian, mendebaldetik sartu zirenak (Sangroniz 32.5 mm/h, Galindo 24.6 mm/h, Abusu 21.5 mm/h, Zorrotza 20.5 mm/h). Nahiz eta Gipuzkoarantz mugitu heinean indar pixka bat galdu, Gipuzkoa ipar-ekialdera iritsi zirenean berriro indartu ziren eta zaparraden intentsitatea oso handia izan zen (Miramon 40.9 mm/h, Andoain 35.6 mm/h, Lasarte 34.9 mm/h, Ereñozu 24.1 mm/h). Miramongo datua azpimarratu behar da, bere serieko errekorra izan baitzen.

Abuztuaren 31a izan zen uda osoan prezipitazioaren batez besteko intentsitate handiena neurtu zen eguna. Enkarterrin zaparrada oso handiren bat neurtu zen, eta zaparrada handiak leku askotan bota zituen, bereziki Bizkaian eta Gipuzkoa ekialdean (Sodupe-Cadagua 35.9 mm/h, Urkizu 28.9 mm/h, Zalla 28.9 mm/h, Aitzu 26.5 mm/h, Bermeo 25.6 mm/h, Igorre 21.8 mm/h, Subijana 19.7 mm/h). Abuztuaren 28tik aurrera, bereziki abuztuaren 31n, prezipitazioaren intentsitatearen (10 minutuan eta ordubetea) errekorrak gainditu zien estazio batzuetan, batez ere Kantauriko bailaretan.

1 Taula. Azken urteetan udan pilatutako prezipitazioa Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2024	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015
Zorrotza	149.1	148.7	76.1	157.9	124.1	84.5	89.1	147.6	75.8	105.2
Lasarte	304.1	253.0	213.5	241.3	242.8	241.1	218.0	279.2	150.7	245.6
Arrasate	167.7	155.3	76.6	112.0	126.6	135.3	138.9	144.3	101.9	149.9
Abetxuko	114.5	61.9	40.1	98.2	82.8	82.6	107.2	83.5	59.0	101.6
Párganos	82.8	95.7	28.7	107.9	103.7	80.3	97.2	126.6	21.4	152.8

Temperatura

Batez besteko temperaturari dagokionez, uda beroa izan zen, 1991-2020 denboraldi normalaren arabera. Kostaldeko batez besteko temperatura 19 eta 21 °C artekoa izan zen eta Arabako Lautadan 18 °C ingurukoa, hau da, ohikoa dena baino 0.5 °C altuagoa. Mende honi dagokionez, erdialdean kokatu zen 2024ko uda, 2022ko eta 2003ko uda beroak buru dituen seriean.



Uda aurrera joan ahala, batez besteko tenperatura gero eta altuagoa izan zen. Ekaina ohikoa izan zen, uztaila beroa eta abuztua oso beroa. Uztailaren bukaera arte ez ziren anomalia positibo handiak izan eta egun beroak hotzekin tartekatuz joan ziren. Uztailaren 28tik abuztuaren 13ra, ordea, egun beroak izan ziren nagusi, haietako batzuk oso aipagarriak.

Uztailaren 18an eta 19an igorri ziren muturreko tenperatura altuengatik udako lehenengo abisuak, Ebro ondoko eskualdean kasu honetan (hilaren 19an, Zambrana 38 °C, Moreda 37.8 °C, Páganos 37.6 °C, Espejo 37.5 °C, Kanpezu 36.8 °C).

Uztailaren 28 eta 30 artean maximoen bigarren bero-bolada bat gertatu zen, oraingoan EAE osoan. Ebro ondoko eskualdean hilaren 31ra arte luzatu zen bero-bolada. Tenperatura altu iraunkorrari loturiko udako lehen abisuak igorri ziren. Egunik beroena hilaren 29a izan zen: Kantauri barnealdean ia 40 °C-ra iritsi ziren (Orozko 39.7 °C, San Prudentzio 39.6 °C, Balmaseda 39.6 °C, Zalla 39.2 °C, Berna 39.1 °C, Mañaria 39 °C, Saratxo 39 °C). Tenperatura minimo altuak izan ziren, izan ere kostaldean eta Arabako Errioxan ez ziren 20 °C-tik jaitsi epe osoan, ezta hiri handien inguruan ere, adibidez Bilbon (Páganos 23.7 °C, Moreda 23.7 °C, Higer 22.6 °C, Galindo 22.3 °C, hilaren 29an). Zenbait estaziotan uztailleko errekorra gainditu zen.

Udako egunik beroena abuztuaren 11a izan zen, 10 °C edo gehiagoko anomalia positiboarekin kostaldean. Lurralde osoan muturreko tenperatura altuengatik alerta laranja igorri zen. Tenperatura maximoen batezbestekoa EAEn 38.5 °C izan zen. Bizkaiko zati handi batean eta Aialako bailaran 40 °C-ak gainditu ziren, baita han-hemenka sakabanatutako beste estazio batzuetan ere (Gardea 42.8 °C, Arteaga 42.5 °C, Derio 42.3 °C, Zizurkil 42.2 °C, Balmaseda 41.7 °C, Iurreta 41.6 °C, Ibai Eder 41.5 °C, Arrasate 41.4 °C, Lasarte 40.8 °C). Arratsaldean enbata izan zen eta tenperatura asko jaitsi zen, bereziki Bizkaiko kostaldean, sargori sentsazioa arinduz. Goizaldean ia ekuatoriala izan zen Arabako Errioxan (Páganos 24.7 °C, Moreda 23.7 °C, Higer 22.4 °C, Egino 22.2 °C, Zorrotza 21.8 °C, Zegama 21.8 °C, Bermeo 20.9 °C). Kostaldeko eta Gipuzkoako barnealdeko zenbait estaziotan haien serieen abuztuko tenperaturarik altuena neurtu zen, kasu batzuetan urteko serie osokoa (Arteaga 42.5 °C, Zizurkil 42.2 °C, Matxinbenta 41.4 °C, Punta Galea 41 °C, Jaizkibel 38.4 °C).

Tenperatura minimoei dagokienez, egunik hotzenak ekainean izan ziren, batez ere ekainaren 13a, eta Arabako Mendialdean eta Añanan. Goizaldean oskarbi geratu zen eta izotza egin zuen Iturrietako mendi inguruan (Iturrieta -0.6 °C, Roitegi -0.5 °C, Pagoeta 0.4 °C, Egino 1.3 °C, Navarrete 1.6 °C, Subijana 2 °C). Gainerako tokietan tenperatura 10 °C-tik behera jaitsi zen, kostaldean eta hirien inguruan izan ezik (Andoain 10.1 °C, Bermeo 10.5 °C, Zorrotza 11.3 °C, Higer 11.8 °C).

Abuztuan, hilaren 11ko beroaren ondoren, tenperatura normaltzen hasi zen, pixkana jaitsiz, eta hilaren 16an hondoa jo zuen. Mediterraneo isurialdeko zenbait lekutan minimoak 5 °C ingurukoa izan ziren (Pagoeta 4.3 °C, Albaina 5.2 °C,



Subijana 6.3 °C, Otxandio 6.7 °C). Antzeko minimoak neurtu ziren hilaren 20an ere (Pagoeta 5.2 °C, Salvatierra 5.6 °C, Etura 6 °C).

Intsolazioa ohikoa izan zen, ipar-ekialdean espero zitekeena baino apur bat txikiagoa. Hiriburuei dagokienez, Bilbon 550 eguzki-ordu izan ziren, Donostian 534 eta Vitoria-Gasteizen 698. Tenperaturaren joerarekin bat eginez, ekainean egon zen zerua hodeitsuago eta abuztua ohikoa dena baino eguzkitsuagoa izan zen.

Taula 2: Udan, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2024	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015
Zorrotza	20.5	21.4	21.9	19.2	19.9	20.1	20.7	19.9	20.6	20.8
Lasarte	19.4	20.2	20.7	18.5	19.4	19.4	19.9	19.7	19.4	19.8
Arrasate	19.1	19.8	20.6	18.2	18.3	18.8	19.1	19.2	18.7	19.4
Abetxuko	18.6	19.2	20.0	17.5	18.0	19.0	19.0	19.2	18.8	19.7
Páganos	21.2	21.5	22.6	19.7	19.8	20.9	20.1	20.8	20.3	21.0


Udako oinarritzko datu estatistikoak

Taula 3: Udako balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan





Estazioa	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min. °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max. l/m ²	Euri- egunak.
Zorrotza	20.5	24.6	41.7	17.1	11.3	0	149.1	20.8	27
Lasarte	19.4	23.6	40.8	15.7	9.3	0	304.1	51.3	33
Arrasate	19.1	25.2	41.4	14.5	7.9	0	167.7	24.9	24
Abetxuko	18.6	26.3	37.4	12.7	5.4	0	114.5	21.9	16
Páganos	21.2	28.9	38.6	14.5	6.7	0	82.8	24.9	11



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak



Prezipitazioaren jokaera

Behatutako prezipitazioa
Precipitación observadaPrezipitazio normala
Precipitación normalPrezipitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normalPrezipitazio normalarekiko portzentala
Porcentaje respecto a la precipitación normal



Muturreko egoerak

Udan 34 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 12 prezipitazio handiagatik, 1 enbatagatik, 6 muturreko tenperatura altuengatik, 6 tenperatura altu iraunkorragatik, 7 baso-sute arriskuagatik eta 2 olatuen altueragatik nabigaziorako lehenengo bi milietan.

Horrez gain, 4 alerta laranja igorri ziren, 2 muturreko tenperatura altuengatik, 1 tenperatura altu iraunkorragatik eta 1 prezipitazio handiagatik.

Ondoren gertaera esanguratsuenen sorta aurkezten da:

Ekaina

- Hilaren 18an Iberiar penintsulan ezegonkortasuna handia izan zen eta udako itxura hartu zuen giroak. Eguerditik aurrera trumoi-ekaitzak garatu ziren han-hemenka eta gainerako orduetan zaparrada ertain batzuk bota zituen gurean, batez ere Araban eta Bizkaian. Trumoi-ekaitzarekin batera, haize-bolada oso gogorrak izan ziren (Moreda, 71 km/h) eta txingorra behatu zen. Hilaren 19an ere Iberiar Sisteman trumoi-ekaitzak garatzeko egoera aproposa izan zen. Arratsalde-gau partean Arabako hegoaldean trumoi-ekaitzak izan ziren eta Herreran zaparrada handia bota zuen. Arabako Errioxan txingorra egin zuen. Egunaren amaieran euria Kantauri isurialdean zabaldu zen, baina zaparradak txikiagoak izan ziren. Hilaren 20an tenperatura maximoak ez ziren hain altuak izan, baina ezegonkortasunarekin jarraitu genuen. Egunaren lehenengo partean zaparradak bota zituen noizbehinka. Egunaren lehenengo partean atertzera egin zuen, baina arratsaldetik aurrera euritara jo zuen berriro eta arratsalde-gau partean Kantauri isurialdean zaparrada handiak bota zituen. Arratsaldean Amorebieta estazioan 10.8 mm pilatu ziren 10 minutuan, gero trumoi-ekaitzak Gipuzkoara eta Arabako ekialdera mugitu ziren. 10 minutuan pilatutakoa ez zen hain handia izan kasu hartan, baina trumoi-ekaitzak ia-geldikorrak izan ziren eta ordubete euri gehiago pilatu zen, batez ere Gipuzkoako ipar-ekialdean.

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 18 (mm/h)	Ordua UTC
Galdakao	11	18:50

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 19 (mm/h)	Ordua UTC
Herrera	16.3	18:10
Ilarduia	12.8	19:50



Estazioa	Prezipitazioa, hilak 20 (mm/h)	Ordua UTC
Miramon	24.6	20:30
Behobia	23.5	20:50
Amorebieta	22.8	16:00
Aizarnazabal	21.3	19:20
Urkizu	21.1	16:00
Altube	17.7	18:10
Eskas	17	21:00

Asteartea, hilak 18: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 19etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 19: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Araban 18etatik 24etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 20: Abisu Horia prezipitazio handiagatik barnealdean 12etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 29an, goizaldean, Gipuzkoako ipar-ekialdean zaparrada trumoitso handiak bota zituen eta 10 minutuan 10 mm baino gehiago pilatu ziren (Andoain, 11.4 mm/10 min, Zizurkil, 10.3 mm/10 min); Zizurkilen zaparrada oso handi bat bota zuen. Goizean goiz trumoi-ekaitzak mendebaldera mugitu ziren eta Gipuzkoako kostaldean zaparrada handiak bota zituen, gero Bizkaian ere bai. Zaparrada horiek ez ziren goizekoak bezain mardulak izan, baina luzeagoak izan ziren eta zenbait lekutan 15 mm baino gehiago pilatu ziren ordubeteetan. Goizean Kantauri isurialdean zaparrada ertainak botatzen jarraitu zuen eta euria Arabako barnealdeko zenbait lekutan ere zabaldu zen. Egunaren erdiko orduetan atertzera egin zuen nonahi. Ibaiek eta errekek gora egin zuten, baina maila horia ez zen inon gaintitu. Hori bai, zenbait lekutan eragozpenak sortu zituzten zaparradek, esate baterako Mendaroko ospitalean; han larrialditarako zerbitzua itxi behar izan zuten. AP-8an luiziak izan ziren euriagatik. Egun hartan Gipuzkoa ipar-ekialdeko zenbait estaziotan 50 mm baino gehiago pilatu ziren (Zizurkil, 53 mm; Lasarte, 51.3 mm; Andoain, 50.7 mm; Miramon, 49.9 mm).

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 29 (mm/h)	Ordua UTC
Zizurkil	30.3	04:20
Lasarte	26.5	04:20
Andoain	26.3	04:30
Altzola	25.9	05:00
Miramon	21.8	04:10
Ereñozu	18	04:40
Sangroniz	16.9	07:00
Oleta	16.9	05:50
Ameraun	16.2	04:10
Oiartzun	15.6	04:30

Larunbata, hilak 29: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Bizkaian eta Gipuzkoan 06etatik 12etara ordu lokala.

Uztaila

- Hilaren 28an, Afrikatik etorritako aire masa bero baten eta maila guztietan gailendu zen hegoaldeko haizearen eraginez, EAE osoari eragin zion beroaldi bat hasi zen. Hilaren 28ko goizean haizea hego-ekialdetik finkatu zen barnealdean bolada gogorrekin, eta temperatura maximoak 36 °C-ra iritsi ziren Ebro ondoko eskualdean, 35 °C-ra iragate-zonan, 33 °C-ra Kantauri barnealdean eta 29 °C-ra kostaldean; bertan, tenperaturaren igoera gainontzeko lekuetan baino beranduago gertatu zen, arratsaldearen amaieran hain zuzen ere. Minimoak ere altuak izan ziren, 19-20 °C-tik gorakoak Kantauri isurialdean. Egun horretan, baso-sute bat izan zen Aretzaldeko (Lezama) sasi batzuetan.

Hilaren 29an beroa zakartu egin zen Kantauri barnealdean (35.2 °C) eta iragate-zonan (35.8 °C), antzeko balioetan jarraitu zuen Ebro ondo eskualdean (35.6 °C) eta brisari esker beroa apalagoa izan zen kostaldean (26.7 °C). Gertaerako baliorik altuenak egun horretan neurtu ziren: 39 °C-ak gainditu ziren Kantauri bailaretan. Gainera, gaua tropikala izan zen kostaldean eta Ebro ondoko eskualdean. Bestalde, tximista baten ondorioz, uztatutako 3000 m² zereal inguru erre ziren Karkamun (Araba).

Hilaren 30ean maximoak zertxobait jaitsi ziren, batez beste 33 °C ingurura barnealdean, baina oraindik altuak izan ziren Ebro ondoko eskualdean (35.4 °C). Baliorik altuenak egun horretan Kantauriko bailaretan, Añanan eta Arabako Errioxan neurtu ziren, 36 °C ingurukoak. Edonola ere, deigarriena tenperatura minimo altuak izan ziren: iragate-zonan izan ezik, gainontzeko zonaldeetan gaua tropikala izan zen. Egun horretan, Oion-en (Araba) sute bat sortu zen uztando batzuetan.

Hilaren 31n goi-geruzetako depresio askatua desegin eta bere hondarrek Iberiar penintsula zeharkatu zuten. Atlantikoko fronte bat gerturatzean mendebaldeko haizea sartu zen eta giroa freskatu zuen, baina oraindik bero sapa handia izan zen Ebro ondoko eskualdean (37.1 °C).

Depresio askatu txikiaren gerturatzeak ezegonkortasun atmosferikoa eragin zuen, eta ondorioz noizbehinka ekaitzak jo zuen hilaren 29an eta 30ean; batez ere azken egun honetan, eta ekaitzek apenas ordu batzuetarako beroa arindu zuten. Bestalde, depresio txiki hori Portugalgo kostalde parean kokatzean Saharan jatorria zuen aire masa gerturatu zuen gurera, eta aire masa hori hauts-ganduekin batera etorri zen. Hauts-gandu horrek sargori sentsazioa areagotu zuen.

Estazioa	Temperatura maximoa hilaren 28an (°C)
Zambrana	38.1
Saratxo	37.6



Espejo	37.2
San Prudentzio	37.2
Arrasate	36.7
Oñati	36.4
Mañaria	36.2
Elorrio	35.8
Orozko	35
Oiartzun	33.1
Zorrotza	31.7

Zonaldea	Tenperatura maximoa hilaren 28an (°C)
Kostaldea	29.4
Kantauri barnealdea	33.4
Iragate-zona	35.2
Ebro ondo eskualdea	35.8

Estazioa	Tenperatura maximoa hilaren 29an (°C)
Orozko	39.7
San Prudentzio	39.6
Balmaseda	39.6
Ordunte	39.2
Zalla	39.2
Berna	39.1
Mañaria	39.0
Saratxo	39.0

Zonaldea	Tenperatura maximoa hilaren 29an (°C)	Tenperatura minimoa hilaren 29an (°C)
Kostaldea	26.7	20.9
Kantauri barnealdea	35.2	19.5
Iragate-zona	35.8	19.8
Ebro ondo eskualdea	35.6	21.6

Estazioa	Tenperatura maximoa hilaren 30ean (°C)
Sodupe-Cadagua	37.2
Zambrana	36.4
Espejo	35.9
Igorre	35.6
Zalla	35.4
Párganos	35.4
Moreda	35.2
Gardea	35.2

Zonaldea	Tenperatura maximoa hilaren 30ean (°C)	Tenperatura minimoa hilaren 30ean (°C)
Kostaldea	30.8	22
Kantauri barnealdea	33.4	20.9
Iragate-zona	33.8	18.4
Ebro ondo eskualdea	35.4	20.3

Estazioa	Temperatura maximoa hilaren 31n (°C)
Páganos	37.7
Espejo	37.5
Zambrana	37.4
Moreda	36.8
Kanpezu	36.5
Trebiño	35.9
Albaina	35.7

Zonaldea	Temperatura maximoa hilaren 31n (°C)	Temperatura minimoa hilaren 31n (°C)
Kostaldea	25.3	20.9
Kantauri barnealdea	29.4	19.5
Iragate-zona	33.8	16
Ebro ondo eskualdea	37.1	18

Igandea, hilak 28: Abisu Horia tenperatura altu iraunkorragatik 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia muturreko tenperatura oso altuengatik 13etatik 20etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 29: Alerta Laranja muturreko tenperatura oso altuengatik Kantauri barnealdean, iragaite-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 13etatik 20etara ordu lokala. Abisu Horia muturreko tenperatura oso altuengatik kostaldean 13etatik 18etara ordu lokala. Abisu Horia tenperatura altu iraunkorragatik 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik iragaite-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 12etatik 22etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 30: Alerta Laranja tenperatura altu iraunkorragatik 00etatik 24etara ordu lokala. Alerta Laranja muturreko tenperatura oso altuengatik Kantauri barnealdean, iragaite-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 13etatik 19etara ordu lokala. Abisu Horia muturreko tenperatura oso altuengatik kostaldean 13etatik 19etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 12etatik 24etara ordu lokala. Baso-sute arriskua altua da, tenperatura altuagatik eta hezetasun erlatibo baxuagatik.

Asteazkena, hilak 31: Abisu Horia tenperatura altu iraunkorragatik barnealdean 00etatik 19etara ordu lokala. Tenperatura minimo/maximoak Kantauri barnealdean 18/32 °C ingurukoak izan daitezke, 17/35 °C ingurukoak iragaite-zonan eta 18/36 °C ingurukoak Ebro ondoko eskualdean. Abisu Horia muturreko tenperatura oso altuengatik iragate zonan eta Ebro ondoko eskualdean 13etatik 19etara ordu lokala. Tenperatura maximoak 35 °C ingurukoak izan daitezke iragaite-zonan eta 36 °C ingurukoak Ebro ondoko eskualdean. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 18etara ordu lokala.

Abuztua

- Hilaren 10ean aire oso beroa zegoen erdi mailako geruzan (24 eta 28 °C artean 850 hPa-eko mailan) eta Araba hegoaldean tenperatura maximoek 38 °C-ak gainditu zituzten leku askotan; adibidez, Ebro ondoko eskualdean batez besteko tenperaturak 38 °C-ak gainditu zituen. Kantauri isurialdean, ordea, giroa ez zen beroa zian; erdi mailako geruzan tenperatura baxua zen eta arratsaldean eki/ipar-ekialdeko haizea ibili zen. Araba hegoaldean eki/hego-ekialdeko haizea nagusitu zen. Kantauri barnealdeko bailaretan 30 °C-ak gainditu arren, kostaldeko batezbestekoa nabarmen baxuagoa izan zen.

Hilaren 11n aire masa beroa kostaldera iritsi zen eta, horrez gain, egunaren lehengo partean hego-ekialdeko haizea nagusitu zen. Horregatik, eta nahiz eta haizearen intentsitatea hain handia ez izan, Kantauri isurialdeko tenperatura bizkor igo zen eta Kantauriko barnealdeko leku askotan tenperaturak 40 °C-ak gainditu zituen, baina kostaldeko zenbait lekutan ere (Punta Galea 41 °C). Mediterraneo isurialdean ere egin zuen beroa eta maximoak hilaren 10ekoak baino altuagoak izan ziren, Kantauri isurialdeko maximoetatik urrun geratu arren. Ilunabar aldera kostaldean enbata izan zen eta tenperatura nabarmen jaitsi zen oso denbora laburrean. Hilaren 11an neurtutako tenperatura minimoak 20 °C-tik gorakoak izan ziren hainbat tokitan, Arabar Errioxan 24-25 °C ingurukoak (Paganos 24.7 °C, Moreda 23.7 °C).

Hilaren 12an erdi mailako geruzan aire-masa beroa desagertuz joan zen eta goizetik aurrera iparraldeko haizea izan zen nagusi gainazalean. Kantauri isurialdean zerua hodeitsu egon zen, behe-hodeiekin. Kostaldean eta Kantauri barnealdean tenperatura maximoak asko jaitsi ziren, izan ere aurreko egunekoak baino 15 °C baxuagoak izan ziren. Egunaren lehenengo partean Mediterraneo isurialdean giroa eguzkitsua izan zen eta tenperatura maximoak udakoak izan ziren; hori bai, iragate-zonan aurreko egunekoak baino 10 °C baxuagoak izan ziren, 30 °C-tik beherakoak leku gehienetan. Ebro ondoko eskualdean haizea beranduago finkatu zen iparraldetik eta maximoak 34 °C-tik gorakoak izan ziren zenbait lekutan. Tenperatura minimeoi dagokienez, barnealdean zerua garbiago egon zen eta, horregatik minimoak jaitsi egin ziren, baina Kantauri isurialdeko zenbait lekutan 20 °C-tik gorakoak izan ziren, batez ere kostaldean.

Estazioa	Tenperatura maximoa, hilak 10 (°C)
Espejo	38.9
Zambrana	38.9
Trebiño	38.3
Páganos	38.2
Kanpezu	38

Zona	Tenperatura maximoa, hilak 10 (°C)
Kostaldea	26.7
Kantauri barnealdea	31.3
Iragate-zona	36.2
Ebro ondo eskualdea	38.2

Estazioa	Tenperatura maximoa, hilak 11 (°C)
Gardea	42.8
Arteaga	42.5
Galindo	42.5
Derio	42.3



Jarralta	42.3
Zizurkil	42.2
Galdakao	42.1

Zona	Tenperatura maximoa, hilak 11 (°C)
Kostaldea	38.8
Kantauri barnealdea	40.3
Iragate-zona	37.9
Ebro ondo eskualdea	38.7

Estazioa	Tenperatura maximoa, hilak 12 (°C)
Kanpezu	34.6
Páganos	34.3

Zona	Tenperatura maximoa, hilak 12 (°C)
Kostaldea	23.6
Kantauri barnealdea	25.7
Iragate-zona	28.2
Ebro ondo eskualdea	33.3

Larunbata, hilak 10: Abisu Horia muturreko tenperatura oso altuengatik iragaite-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 13etatik 21etara ordu lokala. Abisu Horia tenperatura altu iraunkorragatik iragaite-zonan eta Ebro ondoko eskualdean 00etatik 24etara ordu lokala. Igandea, hilak 11: Alerta Laranja muturreko tenperatura oso altuengatik 13etatik 21etara ordu lokala. Abisu Horia tenperatura altu iraunkorragatik 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 12: Abisu Horia tenperatura altu iraunkorragatik Ebro ondoko eskualdean 00etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 28tik 31ra EAEn ezegonkortasuna handia izan zen eta arratsaldeetan eta gauetan zaparrada trumoitsuak eta mardulak bota zituen, zenbait lekutan txingorrarekin batera. Hilaren 28an Arabako zenbait lekutan zaparrada handiak bota zituen (Gorbea, 23.5 mm/h). Hilaren 29an, goizean, zaparrada trumoitsuak denean zabaldu ziren, ezegonkortasun-lerro batek lurraldea zeharkatu baitzuen, hegoaldetik iparraldera mugituz. Ordubeteen 20-30 mm pilatu ziren, zenbait lekutan 10-12 mm hamar minutuan, batez ere ekialdean. Kostaldean ere izan ziren trumoi-ekaitzak. Ezegonkortasun-lerroa pasa ondoren, atertzera egin zuen, baina arratsalde-gau partean zaparrada trumoi-gehiago bota zituen, 15-20 mm/h artekoak eta bolada gogorrekin batera, batez ere Araba ekialdean. Hilaren 30ean, goizean giroa lasaia izan zen, baina arratsaldean han-hemenka ekaitzak jo zuen. Gasteizen ordubeteen 21.7 mm pilatu ziren eta txingor apur bat egin zuen. Hilaren 31n ekaitz-lerro batek EAE zeharkatu zuen, mendebal/hego-mendebaldetik eki/ipar-ekialdera, eta hainbat tokitan zaparrada handiak bota zituen, baita



oso handiren bat ere (Sodupe-Cadagua 35.9 mm/h), haize-bolada oso gogorrekin batera.

Estazioa	Euria, hilak 29 (mm/h)	Ordua UTC
Zegama	29.9	07:50
Ilarduia	26.9	07:30
Moreda	23.6	07:10
Etura	21.8	19:00
Ordizia	20.4	07:50
Kapildui	18.3	18:40
Abusu	16.8	08:10
Salvatierra	16.7	19:00
Inurritza	16.2	08:30
Venta alta	16	08:10

Estazioa	Euria, hilak 30 (mm/h)	Ordua UTC
Arkauti	21.8	16:10
Abetxuko	21.7	16:20

Estazioa	Euria, hilak 31 (mm/h)	Ordua UTC
Sodupe-Cadagua	35.9	16:50
Urkizu	28.9	17:00
Zalla	28.9	16:40
Aitzu	26.5	17:20
Almike (Bermeo)	25.6	17:10
Larrainazubi	25.6	17:00
Igorre	21.8	17:00
Galdakao	19.3	17:00
Amorebieta	15.8	17:10

Osteguna, hilak 29: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 08etatik 24etara ordu lokala.
Ostirala, hilak 30: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara ordu lokala.
Larunbata, hilak 31: Alerta Laranja prezipitazio handiagatik 17etatik 22etara ordu lokala.

Terminologia

Batez besteko tenperatura: urtaroko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen urtaroko batezbestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* urtaroko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen urtaroko batezbestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* urtaroko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* urtarotan, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* urtarotan pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* urtarotan, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* urtarotan, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Tenperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke: <https://www.euskalmet.euskadi.eus/dibulgazioa/estilo-gidaliburua/>

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatze daude.